# BEHI AZIENDA IDENTIFIKATZEKO SISTEMA **BERRIA**






Hemendik aurrera, abeltzainak berak egin dezake aziendaren markatze-lana, abere bat jaiotzen denean. Era berean, etxetik bertatik eman dezake jaiotzaren berri erregistroetan. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak lan prozedura berri bat abiarazi du. Horri esker, abeltzainak berak egin ditzake halako lanak, hala nola identifikazioko belarritakoak eskuratu, abelgorriak epeen barruan markatu, eta bere ustiategiko jaiotzen berri zuzenean eman datu baseetan.

Baita abereen belarritakoak galtzen edo hondatzen direnean ere: jaiotzetarako azaldu dugunaren antzeko sistema baten bitartez egin ditzake abeltzainak identifikazioko bikoiztuen tramiteak (belarritakoak eskatu eta ipini).

Hala ere, nahiz eta sistema berri hori dagoeneko abian dagoen, hala nahi duenak aurreko prozedurak erabiltzen jarrai dezake: abisuak telefonoz eman, eta GIABEKO identifikazio enpresaren lankidetzaz baliatu.



Tramite guztiak egiteko, aski du harremanetan jarri dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoarekin (ENB) edota Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiarekin, honelako lanak egiteko:

- Behar dituen belarritakoak eskatu
- Jaiotzen berri eman
- BIA inprimatu (Identifikazio Agiria)
- Bikoiztuak eskatu, belarritakoak galtzen edo hondatzen direnean

## TRAMITE GUZTIAK ONLINE

Webgune horietan sartzeko, pasahitz operatibo bat beharko duzu, edo ziurtagiri digital bat. Pasahitz operatiboa eta sartzeko kodeak eskuratzeko tramiteak Foru Aldundiko Herritarren Arretarako bulegoetan egin behar dituzu.

Hona hemen helbideak:

**https://www.gfaegoitza.net**
**http://www.nekagip.net/**

Argibide gehiago nahi baduzu, dagokizun ENBn galdetu dezakezu, edo **www.nekagip.net** web orrian sar zaitezke.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

# Zerorrek egin dezakezu!






## Behi azienda identifikatzeko sistema **berria**

Abererik ez, identifikaziorik gabe

## NUEVO SISTEMA DE IDENTIFICACIÓN DEL GANADO BOVINO






Desde ahora los propios ganaderos y ganaderas pueden encargarse del marcaje de su ganado cuando se produzca el nacimiento de un nuevo animal. También la comunicación a los registros puede hacerse desde casa. La Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha un nuevo procedimiento de trabajo que permite al propio ganadero disponer de los crotales de identificación, realizar en los plazos el marcaje de los bovinos y notificar directamente a las bases de datos los nacimientos de su explotación.

También en el caso de pérdida o deterioro de crotales de los animales, el ganadero o ganadera podrá realizar la gestión (solicitud y aplicación) de los duplicados de identificación, a través de un sistema similar al descrito para los nacimientos.

No obstante, aunque este nuevo sistema está en funcionamiento, el procedimiento anterior de avisos telefónicos y la colaboración de la empresa de identificación GIABEKO continuarán operativos para quien los prefiera.



Para todas las gestiones basta con ponerse en contacto con la Oficina Comarcal Agraria (OCA) correspondiente o con la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

- Solicitar los crotales necesarios
- Notificar los nacimientos
- Imprimir el DIB (pasaporte)
- Solicitar los duplicados en caso de pérdida o deterioro de crotales.

### TODAS LAS GESTIONES ON LINE

Las direcciones son:

**https://www.gfaegoitza.net**
**http://www.nekagip.net/**

Para el acceso necesitará una clave operativa o disponer de un certificado digital. La tramitación de la clave operativa y códigos de acceso se realizarán en las Oficinas de Atención Ciudadana de la Diputación Foral.

Para mayor información se puede consultar en la OCA correspondiente o acceder a la página Web **www.nekagip.net**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

Gipuzkoa BERRIA

# ¡Lo puedes hacer tú!






## Nuevo sistema de identificación del ganado bovino

Ningún animal sin identificación